

ERAZTUN MAGIKOA

Gure aitona zenak kontaktzen zuen orain dela urte pilo bat, Dantzeleku mendian haur eta neskatxa bat egon zirela.

Neskatxaren izena Juana zen, haurrarena Gotzon. Juanak Gotzoni opari bat eman zion eta ireki zuen. Barruan, eraztun bat zegoen baina Gotzonek eraztuna hartu eta lurrera bota zuen.

Momentu hartan, Giller eta Neka etorri ziren eta eraztuna aurkitu zuten. Ez zuten ezer esan eta eraztuna poltsikoan sartu zuten.

Juanak hori ikusi zuen eta korrika joan zen beraiengana baina iritsi zen eta ez zuen inor ikusi.

Eraztun magikoa zela eta Giller eta Neka txiki bihurtu ziren, horregatik Juanak ezin izan zuen inor ikusi. Haiek gora begiratu zuten eta Juana ikusi zuten.

Haiek pentsatu zuten Juana erraldoia zela. Giller eta Neka lasai-lasai ibiltzen hasi ziren eta pentsatu zuten. "Etxera iristea denbora pilo bat kostatuko zaigu". Horregatik eraztuna ukitu zuten berriro eta gurari bat eskatu zuten.

- Nola iritsiko ginatke azkar etxera?.....ZAAAASSSST! etxera iritsi ziren.

Bestalde Juanak ezin zuen ulertu ezer eta Gotzoni galdetu zion.

- Gotzon, zer ostia pasatu da? Hemen neska bat eta mutil bat zeuden eta nik ikusi dut nola hartu duten eraztuna baina iristerakoan ez zegoen inor.
- Bai Juana, nik banekien eraztun hori majikoa dela eta lurrera bota dut. Orain arazo larriak ditugu, badakizu zergatik? adibidez, gizonek eta neskek eraztuna gaizki erabiliko balute, gure inguruan desastre handi bat egingo lukete. Horregatik aurkitu beharko dugu. Zuk, Juana badakizu nortzuk ziren?
- Bai, nik uste dut Giller eta Neka zirela eta badakizu non bizi diren?
- Bai badakit, goazen aurkitzera.

Bitartean Giller eta Neka...

- Eratzun horrekin zenbat gauzak egin dezakegun!!! Baietz?
- Probatuko dugu beste gauza bat! Beste gurari bat eskatuko bagenu, aberatsak izango ginateke.....ZAAASSSSST!- diru pilo bat agertu zen eta oso pozik jarri ziren.

Justu momentu horretan atea jo zuten eta Gillerrek galdetu zuen.

- Nor da?

Gotzonek erantzun zuen.

- Ireki atea mesedez! Zuek gure eratzuna daukazue eta badakizue eratzun hori oso arriskutsua dela.
- Bai, guk dantzaleku mendian aurkitu dugu, baina nola dakigu zuena dela?
- Begira, barruan nire aitona gure izenak idatzi zituen. Barruan gure izenak badaude, eratzuna emango diguzue.
- Ados gaude, arazoia daukazue! barruan zuen izenak badaude emango dizuegu.
- Beno gu aberatsak garenez,oso ongi biziko garenez ez zaigu axola eratzuna ematea.

Juana eta Gotzonek eratzuna hartu zuten eta pentsatu zuten "Zer egingo dugu eratzunarekin?"

- Gotzone, gogoratzen duzu San Pedroko mendian hutsik dagoen zuhaitza non dagoen?
- Bai, barruan eratzuna utziko dugu eta inork ez du aurkituko.

...ETA GORRI ETA ZURI ETA ORLEGI IPUIN HAU EGIA BEDI. [^](#)